



Arartekoaren 2019R-2133-18 Ebazpena, 2019ko azaroaren 20koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea bigarren aldiz etetea eta, horren ondorioz, iraungitzea erabakitzen duen ebazpena, enplegu-eskatzaile gisa alta emanda jarraitzeko betebeharretik salbuesten duen arrazoi justifikatua dagoelako.

Aurrekariak

1. Herritar batek kexa aurkeztu du erakunde honetan, eta hori egiteko arrazoia da ez dagoela ados bere bizikidetza-unitateak aitortuta zituen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungi izanarekin.

Bi ebazpenak jakinarazi zitzaizkion unean, bizikidetza-unitatea bikotekideak, ardurapean zituzten hiru seme-alabek (9, 5 eta 1 urtekoak) eta kexagileak berak osatzen zuten. Nolanahi ere, gaur egun guraso bakarreko bizikidetza-unitatea osatzen du ardurapean hiru seme-alaba izanik, egungo bikotekideak eta bi alaba gazteenen aitak familiaren etxea utzi baitu.

Giltzurruneko gaitz bat du kexagileak (hala egiaztatzen duten mediku txostenek) eta, horren ondorioz, egunero dialisia egin behar du eta sendagai garestiak behar ditu. Bizikidetza-unitateak ez du beste diru-sarrerarik familiaren oinarrizko beharrak betetzeko. Egoera hori gorabehera, helduen hezkuntza iraunkorreko prestakuntza-ikastaroetan parte hartu zuen, Lanbiderekin izenpetutako gizarteratzeko hitzarmenean onartutako betebeharrak betez, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa) 7. artikulua aplikatuz.

2018ko maiatzaren 23ko ebazpenaren bidez, Lanbidek kexagileari jakinarazi zion diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzen zitzaiola eta, beraz, etxebizitzarako prestazio osagarria, arrazoi hau dela eta:

“Bizikidetza-unitatean, titularra, ezkontidea edo antzeko harremana duen beste inor enplegu-eskatzaile gisa izena emanda ez egotea, horretatik salbuetsita ez egonik ere.

Prestazioaren indarraldiaren bi urteko epea ez betetzeagatik bi aldiz gabetu izana.”

Horrez gain, erakunde autonomo horrek ebazpenean honako hau adierazi zion kexagileari: *“ezin izango duzula berriro ere prestaziorik eskatu eskubidea azkendu den unetik urtebete igaro arte”*. 147/2010 Dekretu beraren 50.2 artikulua aplikatuz.





Azkenik, iraungitzeko ebazpen horren eranskin batean gogorarazi zitzaion bi prestazioengatik bidegabe jasotako zenbatekoak itzuli behar zituela, hau da, 6.994,00 euro.

2. Interesdunak kexa aurkeztu zuen Arartekoan 2018ko urriaren 17an, ez zetorrelako bat bi prestazio horiek iraungi zizkion ebazpenarekin. Prestazioak iraungitzeko arrazoa zen prestazioa indarrean zegoen epealdi berean bi etenaldi izan zirela. Horri buruz, kexagileak esan zuen lehenengo etenaldia gertatu zela bikotekidea ez zelako lan-orientazioko hitzordura joan diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria indarrean zeuden bi urteko azken epealdiaren hasieran.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren bigarren etenaldian, kexagileak adierazi zuen ere hura gertatu zela jadanik bikotekidea zenak enplegu-eskaera ez zuelako berritu (DARDE) adierazitako egunean, zehazki, martxoaren 25ean. Nolanahi ere, zehaztu zuen betebeharrak ez betetzeko arrazoa izan zela ustekabearen ospitaleratu egin behar izan zutela aipatutako data horretan, giltzurruneko gaitzaren ondoriozko krisi batek jota, Lanbiden aurkeztutako martxoaren 25eko ospitaleratzearen ziurtagiriak egiaztatzen zuen moduan; arrazoi hori dela eta, senar ohiak ospitalera lagundu zion, eta ezin izan zuen hitzordura joan.

Halaber, interesdunak azaldu du, Lanbidek prestazioak iraungi zizkiola jakinarazi zionean bere erreferentziazko bulegora (Txurdinagakoa) jo zuela informazio osagarria eskuratzeko; han aholkatu zioten udaleko gizarte-zerbitzuetara jo zezala, egoera sozioekonomikoari eta medikoari buruzko gizarte-txosten bat egin ziezaioten, bikotekide ohiak DARDEa berritu ez izana justifikatu ahal zezan zegokion epean eta moduan. Helburu horrekin jarri zen harremanetan bere gizarte langilearekin, eta azken horrek kexagilearen eta haren familiaren egoera zaurgarri larria ikusirik, 2018ko urriaren 2an txosten bat egin eta Lanbidera igorri zuen. Nolanahi ere, txosten hori gorabehera, erakunde horrek ez zuen prestazioa berrabiarazteko erabakia hartu.

Adingabeak ardurapean dituen guraso bakarreko familia batek diru-sarrerarik ez izateak eta zaintzaileak osasun-arazo larriak izateak, irauteko oinarrizko gastuak ordaindu ezin izatea dakar.

Arartekoak espediente hau izapidetzeko orduan jakin du kexagileari ezintasun iraunkorreko pentsioa, lan orotarako maila absolutuan, aitortu zitzaiola Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko ebazpenaren bidez, ondorioak 2019ko martxoaren 4tik aurrera izanik.

3. Kexa izapidetzeko onartu ondoren, Arartekoak informazioa eskatu zion Lanbideri eta, horren bidez, erreklamazioaren xedeari lotutako inguruabarren gaineko informazioa eskatu zuen. Jarraian jasoko ditugu, ez errepikatzearen.

Lanbidek kontu horiei erakunde autonomoaren zuzendari nagusiak egindako txostenaren bidez erantzun zion. Zehazki:





Lehenengo etetea, 2017/REV/023074, YYY.K. jaun/andrea (bere bikotekidea) 2017-04-06ko orientazio-bilerara (2017-04-06an jakinarazi zena) ez azaltzeagatik izan zen. Aurkeztutako alegazioetan adierazten du ezin izan zuela bilerara bertaratu egun berean "lan bila joateko geldituta zegoelako", baina ez du aurkeztu hori arrazoitzeko dokumenturik. Horrenbestez, alegazioak ezetsi egin dira.

Bigarren etetea, 2018/REV/028564, YYY. (bere bikotekidea) lan-eskaera ez berritzeagatik dator, 2018-04-12an egin zen etetea eta 2018-04-19an jakinarazi zitzaion. Alegazioetan adierazi du emaztea ospitalean zuelako ezin izan zuela bertaratu, baina ez du aurkeztu hura arrazoitzeko dokumenturik. Horrenbestez, alegazioak ezetsi egin dira.

Prestazioaren indarraldian (bi urtez) bi aldiz etenda egonez gero prestazioa iraungi egiten da.

2018-05-23ko ebazpenarekin iraungi ostean eta 2018-06-02an jakinarazia izan ostean, titularra (...), bulegora bertaratu zen eta iraungitzearen zergatiaren inguruan azalpenak eskatu zituen. Jakinarazten dizugu duzun egoera zaila dela eta txosten soziala eska dezakezula oinarrizko Gizarte zerbitzuetan baina ezinezkoa zaigu ziurtatzea horrek iraungitzea atzeratuko duenik".

Txosten hori jaso eta edukia aztertu ondoren, Arartekoak bigarren eskaera igorri zion Lanbideri 2019ko otsailaren 21ean, informazio osagarria biltzeko. Erantzuna jaso eta aztertu ostean, gure ustez, funtsezkoa zen kexagileak Lanbideri aurkeztu zion gizarte-zerbitzuen txostenaren kopia bat eskatzea. Txosten hura erakunde publiko horren espedientekoa zen. Hala ere, ez zitzaion erantzun gure eskaerari, eta kexagileak berak bidali behar izan zuen Arartekora, 2019ko irailaren 13an, oinarrizko gizarte-zerbitzuek egin zioten txostenaren kopia. Hona hemen haren funtsezko elementuak:

-“ YYY. con DNI XXXX, reside junto con su mujer YYY. con Nie XXX y sus 2 hijas menores de edad en una vivienda en régimen de alquiler. Sus únicos ingresos son los correspondientes a la RGI y PCV.

Esta unidad familiar es atendida en los servicios sociales del Ayto. de Bilbao desde el año 2004 y más en concretamente en la base de Santutxu desde el año 2013.

En junio de 2018 el matrimonio acude a mantener una entrevista con la trabajadora social para trasladarle la siguiente situación:

-Informan que desde Lanbide les han suspendido la RGI y PCV por no haber renovado el paro YYY. en una ocasión. Refieren que la suspensión es de un año





(posteriormente se constata que anteriormente había habido otro incumplimiento, motivo que supone dicha suspensión de 1 año).

YYY. no acudió a sellar ya que su mujer tiene problemas de salud, acude a diálisis y el día que le tocaba sellar ella tenía consultas médicas y YYY. la acompañó por lo cual no cumplió con la renovación. Informan que hicieron un recurso a Lanbide, recurso que fue denegado por lo que la RGI está extinguida.

Desde los servicios sociales la trabajadora social les recuerda los derechos y obligaciones como perceptores de RGI (obligaciones que en su momento tampoco cumplieron).

Así mismo se les insta a que si el motivo de la no renovación es causa médica de XXX. que valoren adjuntar el informe médico oportuno.

Se les informa así mismo que el hecho de tener la rgi y pcv suspendida por causas imputables a su persona, supone que tampoco pueden acceder a ninguna ayuda municipal. '.

Ambos muestran su preocupación ya que XXX. al carecer de recursos económicos no puede comprar los medicamentos precisos encontrándose en una situación de precariedad económica."

Eskaera horri erantzun labur bat eman zion Lanbidek:

-“Tras analizar la información del expediente referenciado, no queda justificada la no renovación de la demanda de empleo por parte de YYY. por lo que la segunda suspensión deviene firme y como tal la extinción de la prestación”.

Hortaz, beharrezkoak diren egitate eta zuzenbide elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin ditugu:

Gogoetak

1. Kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta eten zaio prestazio horren titular gisa dituen betebeharrak ez betetzeagatik.

147/2010 Dekretua, maiatzaren 25ekoa, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoak¹ 12. artikuluan titularren betebeharrak arautzen ditu, haien artean:

(...) b) Titularra eta lan egiteko adina duten bizikidetzaren unitateko kideak lanerako prest egotea.

¹ Ikus: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2010/06/1003020a.pdf>



Prestasun horrekin batera konpromisoa hartu beharko dute enplegu-eskatzaile gisa iraunkorki inskribatuta egoteko, hala dagokionean lan-bitartekaritza ekar dezakeen diagnostiko soziolaboralera egokitutako laguntza-prozesu baten esparruan,

Lanbidek uste du, beraz, hasiera batean, bizikidetzaren unitate bateko diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrek eta onuradunek enplegu-eskaera (DARDE) dagokion epean eta moduan ez berritzea, prestazioak eteteko zioa dela eta baldintza horietan kexagilearen bizikidetzaren unitateko diru-sarrerak bermatzeko errenta nahiz etxebizitzarako prestazio osagarria eteteko ebazpena eragiten duela, honako hau aplikatuz: 147/2010 Dekretu beraren 43. artikulua, 2.d) apartatua eteteko arrazoiak arautzen dituena:

-"Bizikidetzaren unitatean, titularra, titularra, ezkontidea edo antzeko harreman duen beste inor enplegu -eskatzaile gisa izena emanda ez egotea, horretatik salbuetsita ez egonik ere.

Lege-esparru horretan, Lanbidek uste du, hizpide dugun kasu honetan, egiaztatu dela kexagilearen bikotekide ohiak eta bi seme-alabaren aitak ez zuela enplegu-eskaera berri finkatutako datan, oraindik bizikidetzaren unitatearen kide zenean; bete behar hori ez zuen bete, horrenbestez.

Prestazioen indarraldiaren epe berean gertatutako bigarren etenaldia denez, erakunde publikoak diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzat jo zuen eta, horren ondorioz, baita etxebizitzarako prestazio osagarria ere, diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi zen unean iraungi baitzen (haren osagarria da). Halaber, jakinarazten da iraungitze datatik zenbaten hasita, urtebetez ezingo direla prestazioak berriz eskatu.

2. Testuinguru horretan, aipatu nahi dugu 147/2010 Dekretuaren 12.2.b) artikulua araudiak onartutako salbuespenak finkatzen dituela diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrek edo onuradunek enplegurako prest egoteko bete beharretik salbuetsita egon ahal daitezkeen eta, beraz, etengabe enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotetik, beren gizarteratzeko-laneratzeko diagnostikoari egokitutako laguntza-prozesuaren esparruan.

"Prestasun horrekin batera konpromisoa hartu beharko dute enplegu-eskatzaile gisa iraunkorki inskribatuta egoteko, hala dagokionean lan-bitartekaritza ekar dezakeen diagnostiko soziolaboralera egokitutako laguntza-prozesu baten esparruan, enplegu egoki bati uko ez egiteko, enplegua ez behin betiko ezta aldi baterako ere ez uzteko, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin koordinatuta onartutako muturreko kasu justifikaturik gabe lanaldi-murrizketa edo lan-eszedentzia ez hartzeko".

Hizpide dugun kasuan, une horretan bizikidetzaren unitateko kide zen kexagilearen bikotekidea ez zen adierazitako hitzordura joan enplegu-eskaera berritzeko (DARDE)



bizikidetzaren unitatearen kide zen bitartean. Nolanahi ere, justifikatzeko, Lanbiden kexagilearen ospitaleratzearen ziurtagiri bat aurkeztu zuen, hari ezustean premiaz lagundu behar izan baitzion, kexagileak duen giltzurruneko gaitz larriak eragindako krisi batek jota. Krisi horien ondorioz, aldi behin ospitaleratu behar izaten dute. Hori guztia, bere historia klinikoan egiaztatu da mediku txostenen bitartez. Egoera hori duela gutxi amaitu da, era honetan: Gizarte Segurantzak lanerako ezintasun orokor absolutua aitortu dio.

Gainera, inguruabar horiek 2018ko urrian oinarrizko gizarte zerbitzuek egindako txostenaren bidez ere egiaztatu ziren; horren bidez, kexagileak duen gizarte-bazterketa egoera eta osasun-arazoak adierazten ziren.

Txosten horretan, halaber, azaltzen zen bigarren etenaldiak eta diru-sarrerak bermatzeko errenta ordaintzeak guraso bakarreko bizikidetzaren unitatean (adingabeak ardurapean ditu) zer-nolako eragina zuen. Bigarren etenaldi horren ondorioz, bi prestazioak iraungi ziren, eta horrek eragin du ere Bilboko Udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuek gizarte larrialdietarako laguntzen eskaera ez onartzea; hala jasotzen da berariaz igorritako txostenean, udalak uste baitu ezin dituela haiek eskuratu diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria etenda dauden bitartean. Gai hori ere aztertu zen *Diagnostiko-txostena, Lanbideko diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017*² izeneko agirian:

"Kontu kezkarria eta funtsezkoa da, diru-sarrerak bermatzeko sistemaren koherentziaren ikuspuntutik. Zoritxarrez, aipatutako kasuetan eta kontuan hartuta hartzaileak geratzen diren egoera ahula, egoera iragankor horri aurre egiteko geratzen zaion baliabide bakarra, erreklamazioak izapidetu arte, gizarte-langileengana desbideratzea da, Gizarte Larrialdiko Laguntzaren bat jasotzeko aukera proposa dezaten: elikagaien txartela; hornikuntzen ordainketa; alokairua, etab. Pertsona horiei Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzea ukatzen zaie eta horrek arreta-aukera bat ixten du ahultasun bereziko momentu batean".

Inguruabar horiek, bi seme-alaba adingabeen aitak familiaren etxea utzi izanarekin batera, bizikidetzaren unitatearen zaurgarritasun egoera larria nabarmen okertu dute. Ez da ahaztu behar bizikidetzaren unitate bati aitortutako diru-sarrerak bermatzeko errentak/etxebizitzarako prestazio osagarriak, Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen³ esparruan, eta besteak beste Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak garatutakoak, gizarte eta lan bazterketa nahiz bazterketa pertsonaleko egoerak arintzea dutela xede; horrekin batera, herritarren gizarte-eskubideak benetan

² Hemen eskuragarri: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf

³ Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd1998001344>

baliatzeko nahikoa gizarte edo ekonomia baliabide eta baliabide pertsonal ez dituzten pertsonak gizarteratzea (1. art.).

Lege testuinguru honetan, emakumeek eta ardurapeko seme-alabek osatutako guraso bakarreko familiak pobrezia-egoerek eragiten dituzte bereziki, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egindako txosten⁴ eta diagnostikoetan, eta maila anitzeko beste erakunde batzuek⁵ egindakoetan jasotzen den moduan.

3. Arartekoak esku artean duen informazioaren arabera, Lanbidek Laneratze Arloaren dokumentu bat du, eta, bertan, erakunde autonomoaren arabera eskaera berreskuratzeko justifikatutako 13 arrazoiren zerrenda agertzen da, eskaera ez berritzeagatiko baja baten ondoren⁶:

“Jarraian aipatzen direnak joko dira enplegu-eskaera berreskuratzeko arrazoi justifikatutzat, eskaera berritzeko ezarritako epearen barruan berritze-eskaera aurkeztea ezinezkoa egin duten honako baldintza hauek suertatu badira eta behar bezala egiaztatzen badira:”

Haien artean 3. apartatua nabarmentzen dugu, eta honako hau adierazten du arrazoi justifikatu gisa:

“Bizikidearen edo bigarren maila arteko ahaidetasun edo odolkidetasuna duten senideen gaixotasun larria edo heriotza. Gaixotasun larria edo heriotza mediku ziurtagiri, bajako parte mediko edota heriotza-ziurtagiri bidez egiaztatuko da, eta elkarren arteko ahaidetasuna ziurtatzen dituen agiri bidez...”

Nolanahi ere, Lanbidek igorritako bi lankidetzatxostenetan, Arartekoaren informazio eskaerei erantzunez, ez zirudien justifikatutako DARDEa ez berritzeko erabilitako arrazoa onartzen zenik. Hori guztia, nahiz eta kexagilearen bikotekideak

⁴ Ikus “Gutxieneko errenta jasotzen duten guraso bakarreko familiei buruzko azterketa”, Pobreziaren aurkako Borrokarako Europar Sareak (EAPN) egindakoa, 2019: https://www.eapn.es/ARCHIVO/documentos/documentos/1568715475_estudio-familias-monoparentales.pdf

Ikus: EUSKADIKO GIZON ETA EMAKUMEEN 2018KO ZIFREN txosteneko 102. orrialdea: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio_cifras/eu_emakunde/adjuntos/zifrak_2018.pdf

“Diru-sarrerak bermatzeko errenta, eta neurri txikiagoan, etxebizitzaren prestazio osagarria, batez ere emakumeek jasotzen dituzte, baita 2017an ere; aurreko urteetan jadanik izandako egoera hori apur bat arindu da, nahiz eta prestazioen kopuru absolutua murriztu egin den. Guraso bakarreko familientzako laguntzetan emakumeak nagusi dira erabat.”

⁵ Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren emaitzen txostena (PGDI) 2018: Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/epds_2018/eu_epds2012/data/2018ko%20PGDI_Txostena.pdf

EMAKUNDE 2018 Txostena: “Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa gizarte bazterketa eta txirotasunean” [Hemen eskuragarri: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/es_def/adjuntos/exclusion_pobreza_es.pdf] [Hemen eskuragarri: <https://www.lanbide.euskadi.eus/db/-/informazioa/erizpideak/>]

⁶ Hemen eskuragarri: https://www.lanbide.euskadi.eus/contenidos/informacion/preguntas_demanda/es_def/adjuntos/Causas_justificadas_recuperacion_demanda_por_NO_renovacion.pdf



Lanbiden dokumentuak aurkeztuta egiaztatu duen (Osakidetzaren ospitaleratze-ziurtagiria eta gizarte zerbitzuen txostena) bikotekideari ospitalera laguntzea izan zela enplegu-eskaera berritzera ezin joan izanaren arrazoia.

Ildo horretan, deigarria da zerbitzu publiko baten txosten bati zer balio eskasa eman zaion, eta gai hori zehatz-mehatz aztertu zen lehen aipatutako 2017ko diagnostiko-txostenean, (bai eta honi buruzko 2016ko txosten berezian ere: *"Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Gizarte Zerbitzuen egoera: gaur egungo egoera eta hobetzeko proposamenak"*⁷.)

Lehen aipatutako diagnostiko-txostenean Eusko Jaurlaritzari, foru aldundiei eta udalei (udalen elkarteak barne) emandako gomendio interesgarri hau ere proposatzen zen: **"24. Koordinazioa diru-sarrerak bermatzeko sistemarekin: oinarritzko gizarte zerbitzuen eta Lanbideren arteko harremana eta horiek diru-sarrerak bermatzeko sisteman duten zeregina berrikustea"**.

18/2008 Legeak, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoak, 2.a) artikuluan adierazitakoa azpimarratu behar da, beraz; lege horrek ezarritako helburuen artean dago Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema eratzea sistema autonomo gisa, eta haren kudeaketan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak parte hartuko luke beste herri-administrazio batzuen lankidetzarekin. Betebehar hori urriaren 1eko 40/2015 Legearen (Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa) 141. eta 142. artikuluek babesten dute, herri-administrazioen arteko lankidetzarako betebeharra agintzen duena.

4. Adingabearen interes gorenaren printzipioa kontuan hartzearen garrantzia azpimarratzen jarraitu behar du erakunde honek eta, horregatik, Arartekoaren apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio Orokorrean⁸ jasotako gomendioak errepikatu behar dira.

Arartekoak honako gomendio hauek helarazi zituen gomendio orokor horretan:

"Haurrak dauden bizikidetzaren unitateei eragingo dieten ebazpenetan, prestazioak etetea eta iraungitzea erabakitzen denean, haurren eskubideetan eta garapenean edukiko dituen ondorioak azaldu eta justifika daitezela.

Prestazioak eteteko edo iraungitzeko prozedura batean, adingabearen interes nagusia zaintzeko asmoz, prestaziorako (edo prestazioetarako) eskubidea mantendu behar dela ondorioztatzen denean, betebeharra ez betetzeari dagokion zigortzeko prozedura has dadila."

⁷ Hemen eskuragarri: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4074_1.pdf

⁸ Hemen eskuragarri: http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3662_1.pdf



Gomendio honen xede den iraungitzeko erabakiak, inguruabar hauetan, ez du proportzionaltasunaren printzipioa betetzen⁹, eta adingabearen interes gorena ere ez du aintzat hartu.

Arartekoaren ustez, ebazpen honetan aztertzen dena bezalako kasu batean, zehapen-araubide bat ezartzean, bereizi ahalko lirateke prestazioaren titularrak betebeharren bat bete ez duen (hizpide dugun kasuan bezala) baina abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 16. artikuluan eta maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9. artikuluan aurreikusitako betekizunak galdu ez diren kasuak.

Horrenbestez, zigor bat jarri ahalko litzateke eta, era berean, prestazioaren ordainketari eutsi prestazioaren titular izateko betekizunak betetzeagatik. Horrez gain, prestazioa ordaintzen jarraituko litzateke bereziki adingabeak daudenean (3), baldin eta bizikidetz-unitateak prestazioaren titular izateko betekizunak betetzen baditu baina betebeharren bat bete ez badu. Zehazki, kontuan hartu behar da diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzera eraman duen betebeharra ez betetzea egozten zaion pertsona ez dela haiekin bizi; beraz, familiari kalte eragiten diote jadanik bizikidetz-unitatearen parte ez den pertsona baten jokabidearen ondorioek. Horregatik, Arartekoak gogora ekarri du Europako Batzordearen otsailaren 20ko gomendioa garrantzitsua dela¹⁰ ("*Haurrengan inbertitzea: desabantailen zikloa haustea*"); erakunde honek gomendio hori aipatu zuen 2/2015 Gomendio Orokor horretan. Familia-prestazioak gurasoen jokabidearen baldintzapean daudenean, zuhurtziaz jokatu behar dela defendatzen du Europako Batzordeak, eta kasu bakoitzean neurrien balizko eragin negatiboa ebaluatzen du.

Erakunde honen ustez, hortaz, berriz esan behar da adingabearen interes gorena kontuan hartu behar dela. *Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017*¹¹ agirian azertu genuen moduan, herri-administrazioen erabakietan kontuan hartu beharreko lege-agindu bat da, eta hartutako erabakiaren arrazoiketaz azaldu beharko litzateke, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 2. artikuluan ezarritako baldintzetan (bere idazketa berrian).

Azkenik, honaino azaldutako guztiagatik, Ararteko honek uste du, hizpide dugun kasuan, bizikidetz-unitateari aitortutako diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren bigarren etenaldia ez dela zuzenbidearen araberakoa izan, onuradunetako batek enplegu-eskaera zegokion epean eta moduan ez berritzeko arrazoi justifikatua baitago.

⁹ Gai hori sakon azertu zen [Arartekoaren 2016S-839-15 Ebazpenean](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4008_1.pdf), hemen eskuragarri dagoena: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4008_1.pdf

¹⁰ Hemen eskuragarri: <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2013:059:0005:0016:ES:PDF>

¹¹ Ver: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf





Horregatik, uste du kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzeko erabakia ez dagoela justifikatuta, prestazio horien indarraldian aurrez bi etenaldi egon zirelako.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak honako gomendio hau egin nahi dio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

GOMENDIOA

Arartekoak ebazpena berriz aztertzeko gomendatzen du. Horren bidez, kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria bigarren aldiz etetea erabaki da eta, horren ondorioz, bi prestazio horiek jasotzeko eskubidea iraungitzea, honako hau uste baitu: aztertutako kasuan arrazoi justifikaturen bat egon zela, enplegu-eskatzaile gisa, epearen barruan, alta emanda jarraitzeko betebeharretik salbuesteko.

